

Esp. Zkia.- Z/G
E.E.- 2024-00469**439/2024 ALKATETZA DEKRETUA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2024ko urriaren 29an.

OINARRIA: 2024ko urriaren 9an, udal sarrera erregistroan E202403301 inskripzino zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian Bizkaiko Elikagaien Bankuak (IFK: G48755433; helbidea: Cervantes Etorbidea, 49, 7. Modulua 48970 Basauri) bere jarduera humanitarioa eta soziala gauzatzeko dirulaguntza eskatu du.

OINARRIA: Egoera ahulean dauden familiek dituzten arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak direla adierazten da.

OINARRIA: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Bizkaiko Elikagaien Bankua elkarteari (IFK: G48755433; helbidea: Cervantes Etorbidea, 49, 7. Modulua 48970 Basauri) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 230-48001 aurrekontu-partideari zordunduta.

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau 2025eko zezeilaren 28a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

HIRUGARRENA.- Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailerik guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Amaia Lekue Mezo
AlkateaNire Aurrean,
Idazkaria